

162.700 langabe Euskal Herrian, aurreko hiruhilekoan baino 3.900 gehiago (INE)

> 2017ko hirugarren hiruhileko datuen arabera (EPA inkestari dagozkionak), Euskal Herriko langabezia tasa %11,02koa da (INE), aurreko urteko hiruhilabetean baino 0,23 puntu handiagoa. EUSTATEk berriki kaleratutako datuen arabera, Euskal Herrian langabezia tasa iaz baino 0,37 puntu handiagoa da eta %10,99an kokatzen da. Bi iturrien erradiografia oso antzekoa da, bai joeran zein langabezia mailari dagokionez.

> Azken hiruhilekoan langabetuen bolumena apaldu egin da Araban (-3.300) eta Nafarroa Garaian (-200) INEren arabera. Bizkaian (+5.400) eta Gipuzkoan (+2.000), ordea, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta langabetuen bolumena handitu egin da, baita Ipar Euskal Herrian ere (+100). EUSTATEN arabera, ordea, langabetuen bolumena handitu egin da Euskal A.E.ko hiru herrialdeetan.

> INEeko datuen arabera, azken hiruhilekoan langabezia tasa nabarmen jaitsi da Araban (-2,10), eta zertxobait Nafarroa Garaian (-0,03). Gainontzeko lurraldeetan igo egin da, bereziki Bizkaian (+0,88). INE eta EUSTAT bat datoz Euskal A.E. osoko langabezia tasaren argazkian, baina EUSTATEk ez du INE Araban irudikaturiko langabeziaren jaitsiera berresten. Bi iturriak bat datoz Bizkaiko langabeziaren igoeran, baina EUSTATEk modu apalagoan irudikatu du.

> Azken hiruhilekoan, Euskal Herriko langabezia tasa 0,2 puntu handitu den bitartean, EB-28koa 0,2 puntu apaldu da. Horrela, aurreko hiruhilekoan bi lurraldeen arteko aldea murrizteko joeraren etena berresten da hiruhileko honetan. Egun, Euskal Herriko langabeziak Europako Batasuneko batz bestekoa baino 3,6 puntu handiagoa izaten jarraitzen du (INE).

Langabezia-tasa eta langabe kopurua. Euskal Herria eta bere lurraldeak, 2011/2017-III epea.

		LANGABEZIA-TASA									LANGABETU GORDINAK		
		2011	2012	2013	2014	2015	2016	2016-III	2017-II	2017-III	2016-III	2017-II	2017-III
EAE	INE	12,35	15,60	16,57	16,33	14,77	12,59	12,80	11,23	11,56	133.300	114.300	118.300
	EUSTAT	10,80	11,80	15,10	16,10	15,35	13,40	12,70	11,00	11,50	132.200	113.900	118.900
Araba	INE	10,75	16,57	17,51	17,20	15,01	11,99	12,16	13,05	10,95	18.800	19.900	16.600
	EUSTAT	7,80	9,43	15,08	17,08	15,95	13,60	13,90	11,60	12,10	21.800	18.200	19.100
Bizkaia	INE	14,16	16,89	17,76	17,32	15,99	14,21	14,50	12,54	13,42	79.400	67.800	73.200
	EUSTAT	13,18	14,20	16,73	17,23	16,65	14,90	14,00	12,20	12,80	76.600	66.100	69.100
Gipuzkoa	INE	10,18	12,97	14,12	14,26	12,67	10,26	10,35	8,18	8,73	35.000	26.500	28.500
	EUSTAT	8,18	8,90	12,48	13,93	12,98	11,00	10,00	8,80	9,10	33.800	29.700	30.800
Nafarroa Garaia	INE	12,99	16,16	17,93	15,71	13,83	12,49	12,41	10,55	10,52	38.400	33.000	32.800
Ipar Euskal Herria (*)	INSEE	7,88	8,57	8,97	8,82	8,91	8,57	8,65	8,16	8,25	12.100	11.500	11.600
Lapurdi	INSEE	8,61	9,35	9,78	9,64	9,74	9,44	-	-	-	-	-	-
Nafarroa Beherea	INSEE	4,16	4,57	4,73	4,95	5,01	4,58	-	-	-	-	-	-
Zuberoa	INSEE	4,84	5,20	5,56	5,50	5,38	5,28	-	-	-	-	-	-
EUSKAL HERRIA (*)	INE	12,10	15,09	16,17	15,51	14,03	12,19	12,33	10,79	11,02	183.800	158.800	162.700
	EUSTAT	11,00	12,45	15,14	15,36	14,45	12,78	12,24	10,63	10,99	182.700	158.400	163.300

(*) Ipar Euskal Herrian 2014 urtetik aurrera biztanleria aktiboaren estimazioa aintzat hartzen du. Urteroko berrikuspena.

Iturria: EUSTAT, INE eta INSEE. Ekoizpen propioa.

Harremanetarako:

Gaiendegiako prentsa bulegoa (Aitor)

komunikazioa@gaiendegia.eus

Tel: (0034) 943 304 365

Martin Ugalde Kultur Parkea

Gudarien etorbidea 8, 20140 Andoain

Langabezia-tasa. Euskal Herria eta Europa, 2011/2017-III epea.

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2016-III	2017-II	2017-III (p)
Grezia	17,9	24,5	27,5	26,5	24,9	23,6	22,6	21,2	20,1
Espainia	21,4	24,8	26,1	24,5	22,1	19,6	18,9	17,2	16,4
Katalunia	19,2	22,5	23,1	20,3	18,6	15,7	14,6	13,2	12,5
EUSKAL HERRIA (INE)	12,1	15,1	16,2	15,5	14,0	12,2	12,3	10,8	11,0
EUSKAL HERRIA (EUSTAT)	11,0	12,4	15,1	15,4	14,4	12,8	12,2	10,6	11,0
Zipre	7,9	11,9	15,9	16,1	15,0	13,0	13,0	10,6	10,8
Italia	8,4	10,7	12,1	12,7	11,9	11,7	10,9	10,9	10,4
Kroazia	13,7	15,8	17,4	17,2	16,1	13,4	11,7	10,3	9,5
Frantzia	9,2	9,8	10,3	10,3	10,4	10,1	9,6	9,1	9,4
Portugal	12,9	15,8	16,4	14,1	12,6	11,2	10,7	9,0	8,7
Letonia	16,2	15,0	11,9	10,8	9,9	9,6	9,5	8,9	8,2
Finlandia	7,8	7,7	8,2	8,7	9,4	8,8	7,6	9,9	7,7
Belgika	7,2	7,6	8,4	8,5	8,5	7,8	7,9	7,0	7,5
EB-28	9,7	10,5	10,9	10,2	9,4	8,6	8,2	7,6	7,4
Eslovakia	13,7	14,0	14,2	13,2	11,5	9,7	9,5	8,1	7,4
Lituania	15,4	13,4	11,8	10,7	9,1	7,9	7,5	7,0	7,3
Irlanda	14,7	14,7	13,1	11,3	9,4	7,9	8,0	6,4	6,3
Suedia	7,8	8,0	8,0	7,9	7,4	6,9	6,3	7,3	6,2
Eslovenia	8,2	8,9	10,1	9,7	9,0	8,0	7,4	6,4	6,1
Estonia	12,3	10,0	8,6	7,4	6,2	6,8	7,5	7,0	5,9
Bulgaria	11,3	12,3	13,0	11,4	9,2	7,6	7,0	6,3	5,9
Luxenburgo	4,8	5,1	5,9	6,0	6,5	6,3	6,2	5,6	5,8
Danimarka	7,6	7,5	7,0	6,6	6,2	6,2	6,3	5,5	5,7
Austria	4,6	4,9	5,4	5,6	5,7	6,0	6,1	5,4	5,5
Errumania	7,2	6,8	7,1	6,8	6,8	5,9	5,7	4,8	4,9
Polonia	9,7	10,1	10,3	9,0	7,5	6,2	5,9	5,0	4,7
Herbehereak	5,0	5,8	7,3	7,4	6,9	6,0	5,6	5,0	4,5
Erresuma Batua	8,1	7,9	7,5	6,1	5,3	4,8	5,0	4,3	4,4
Flandria	4,3	4,5	5,0	5,1	5,2	4,8	4,9	4,4	-
Hungaria	11,0	11,0	10,2	7,7	6,8	5,1	4,9	4,3	4,2
Eskozia	8,0	8,0	7,2	5,9	5,7	5,1	4,7	3,9	4,1
Malta	6,4	6,3	6,4	5,8	5,4	4,7	4,8	4,1	4,1
Alemania	5,8	5,4	5,2	5,0	4,6	4,1	4,0	3,8	3,7
Txekiar Errep.	6,7	7,0	7,0	6,1	5,1	4,0	4,0	3,0	2,9
Turkia	9,1	8,4	9,0	9,9	10,3	10,9	11,1	10,3	-
AEB	8,9	8,1	7,4	6,2	5,3	4,9	5,0	4,2	4,6
Norvegia	3,3	3,2	3,5	3,5	4,4	4,7	4,9	4,5	4,3
Japonia	4,6	4,3	4,0	3,6	3,4	3,1	3,1	3,0	2,8
Islandia	7,1	6,0	5,4	5,0	4,0	3,0	2,6	3,4	1,8

Oharrak:

(p) Behin-behineko datuak.

Estazionalizatutako datuak.

Iturria: EUSTAT, INE, INSEE, EUROSTAT, Erresuma Batuko Estatistika Bulego Nazionala eta Belgikako Gobernu Federala. Ekoizpen propioa.